

## San Pankrazio 2016, unibertsitateko festa

2016/05/10

Aurten ere, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak San Pankrazio festa ospatuko du maiatzaren 12an. Unibertsitatearentzako egun garrantzitsua da, baita langile eta ikasleentzat ere. Egun horretan Industria Diseinuko ohiko Arrautza Jaurtiketa lehiaketa egingo da. Lehiaketa honetan ikasle eta langileek euren abilezia erakutsi ahal izango dute arrautza bat babestu eta jaurtitzeko tramankulu bat sortuz. Arrautza hautsi gabe urrunen jaurtitzea lortzen dutenek irabazten dute. Horrez gain, beste hainbat joko egongo dira Informatika eta Telekomunikazioetako ikasleentzat, 1 Formulako txapelketa, bideojokoak eta gitarra, besteak beste.

Ekintzak amaitzerakoan txistorra pintxoak banatuko dira frontoian eta ondoren, 14:00ak aldera Herri bazkaria egingo da. Arratsaldean berriz musika izango da protagonista; poteo orduan Elektrotzaranga bat ibiliko da tabernaz taberna eta gauean kontzertua egongo da frontoian. Ekintza guztiak Goi Eskola Politeknikoko Iturripeko campusean egingo dira.

Goi Eskola Politeknikoko Orona Ideoko campusean ere ekintza eta txapelketa desberdinak egingo dira. Goizean zehar, ping-pong, dardoak, toka, Wii, Singstar, saskibaloiko tripleak eta tokeak egongo dira. Guzti hau hamaiketako batekin. Goizeko ekintzak amaitzerakoan ikasle zein irakasleak bazkatzera joango dira. Bazkalostean, sari banaketari hasiera emango zaio, eta baita mus eta poker txapelketari.

Hau da San Pankrazio egunerako Iturripeko campusean prestatu den egitaraua:

- 10:00- Kirol txapelketak (saskibaloia, areto futbola, partxisa, musa, etab.) Kirol Zerbitzuak antolatzen du.
- 11:00- Arrautza jaurtiketa
- 11:00- Informatikako eta Telekomunikazioetako ikasleentzako jokoak
  - 1 Formula txapelketa
  - Bideo-jokoak
  - Gitarra
- 12:00- Txosnaren irekiera
- 12:30- Txistorra banaketa
- 14:00- Herri bazkaria
- 16:30- Elektrotzaranga
- 19:30- Kontzertuak



**San Pankrazio**  
**2016**

10:00etan Jokoen hasiera  
Iturripeko kirol gunean irakasleen areto futbol txapelketa eta ikasleen 3x3 saskibalo txapelketa.  
Kantinan Mus, Partxis eta Jenga txapelketak.  
Izen-ematea Kirol Zerbitzuan.

10:00 Comienzo de juegos  
Torneo entre profesores de futbol sala y torneo entre alumnos de baloncesto 3x3.

Campeonatos de Mus, Parchis y Jenga en la Cantina.  
Inscripciones en el Servicio de Deporte.

Ekintza hauetan parte hartuz, honakoa onartzen da: Kirol zerbitzuak dibulgaziorako eta bere sare sozialetan erabiltzeko argazkiak atera ditzake. MONDRAGON UNIBERTSITATEA ez da praktikagatik zoriz gertatutako istripuen erantzule eta eskolako seguru edo nerberaren seguruak bere gain hartuko ditu.

Al participar en estas actividades, se acepta lo siguiente: El servicio de deportes podrá sacar fotos para uso divulgativo en su web y redes sociales. MONDRAGON UNIBERTSITATEA no es responsable de los accidentes fortuitos originados por la propia práctica, quedando cubiertas por el seguro escolar o seguro individual.



# San Pankrazio

Egitaraua: Maiatzak 12 2016

10:00 Jokoak "Kirol zerbitzuak antolatuta" (Juegos-Games)

11:00 Arrautza jaurtiketa- 7. eraikinean (Lanzamiento de huevo- Egg release)

11:00 Informatika eta Telekomunikazioko ikasleen jokoak- 11. eraikinean (Juegos de los alumnos de informática y telecomunicación- Computer science and telecommunications student games)

12:00 Txosnen Irekiera (Apertura de txosnas- Txosnas opening)

12:30 Txistorra pintxo banaketa frontoian (Degustación de pinchos de chistorra en el frontón/ Txistorra bite tasting in the frontis)

14:00 Herri bazkaria frontoian (Comida en el frontón- Lunch in the frontis)

16:30 Elektro Txufia Txaranga tabernetan zehar (Elektro Txufia Txaranga por los bares- Pub crawl with Elektro Txufia Txaranga)

19:30 Kontzertuen hasiera (Comienzo de conciertos- Beginning of concerts)



Beranduago (Más tarde- Later)



Antolatzaileak:



Taberna Laguntzaileak:

- Txixinpe
- Arimazuri
- Zeppelin
- Xaramela
- Egazka

